

Arartekoaren aurkezpena

Idazterakoan era bakarra erabiltzea argitzailea da, adierazmenari lagundu eta lana aurreratzen du. Gurea bezalako Erakunde batek, gai desberdinak erabili behar izaten dituelarik, metodologia eta kodekuntzaren premia du, bere egin-beharra eraginkortasun handienaz bete ahal izateko.

Ararteko Erakundeak berezkoa duen iharduerak sortutako dinamikak, erakunde eta administrazio-zentro desberdinekiko erlazioen bilbea taiutzen du. Iharduera horrek kasurik gehienetan lengoai espezialdu eta berarizkoa erabiltzea eskatzen du.

Praktikan nabarmentzen da unibertsalki kodetuagoa den arautegiaren premia, gure kasuan, Autonomi Komunitatean ofizialak diren bi hizkuntzen inguruan, are gehiago testuei trataera informatikoa ematen zaienean. Horrela, *Euskal Legebiltzarrari Txostena 1989* lantzean, eremu eta eskola desberdinetan beren buruak prestaturiko pertsonak sail diferentetan burutu zutelarik, argiro ikusi ahal izan genuen zenbateraino zen zailtasun gehitua, adibidez, maiuskulak erabili, artikulua edo liburuak transkribatu edo aipatu, puntuazio-zeinuak erabili eta abar egitean, forma zuzen eta okerrak zedarritzea.

Esperientzia honek koaderno arauemaile bat prestatu-beharra erakutsi zigun, idazketa bateratua lortzen gidari izango genuena. Beraz, eskuartean dugunaren helburua agerpenetan argitasun handiagoa lortu, eta lan egitean ekonomia eta arintasun handiagoak izatea da.

Eginbehar honetarako itzal handieneko bibliografiaz baliatu gara eta gida-koaderno egitea Lorea Arrieta, testuak zuzentzearen arduradunari eskatu zaio, Erakundeko pertsonalaren eskuetan lanerako tresna eraginkor bat jartzea beste asmorik gabe.

Horra zergatik prestatu dugun honako liburuska hau, Era-
kondearen barnean erabiltzeko.

ARARTEKOA

Juan San Martin Ortiz de Zarate

Presentación del Ararteko

La uniformidad en la escritura es clarificadora, ayuda a la expresividad y economiza el trabajo. Una Institución como ésta, que precisa manejar diversa temática, necesita una metodología y codificación en aras de una mayor eficacia en el cumplimiento de su función.

La dinámica que genera la actividad inherente a la Institución del Ararteko, configura el entramado de relaciones con las distintas entidades y centros administrativos. Esta actividad conlleva el uso de un lenguaje especializado y específico en la mayoría de los casos.

Es en la práctica donde se observa la necesidad de una normativa universalmente más codificada, en torno, en nuestro caso, a las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma, máxime cuando los textos son tratados informáticamente. Así, en el proceso de elaboración del *Informe al Parlamento Vasco 1989*, confeccionado en sus distintos apartados por personas que adquirieron su formación en áreas y escuelas distintas, pudimos comprobar hasta qué punto suponía una dificultad añadida, por ejemplo, la delimitación de las formas correctas e incorrectas en el uso de las mayúsculas, en la transcripción o mención de citas, artículos o libros, en la utilización de los signos de puntuación, etc.

Esta experiencia nos hizo ver la necesidad de un cuaderno normativo, que sirviera de guía en la consecución de una redacción unificada. El objetivo se resume, por lo tanto, en el logro de una mayor claridad en la exposición, y de una mayor economía y agilidad en el trabajo.

Hemos recurrido a la bibliografía más autorizada para el caso que nos ocupa y se ha encomendado la realización del cuaderno-guía a la encargada de la corrección de textos, Lorea Arrieta, sin otro ánimo que el de poner a disposición del personal de la Institución un instrumento eficaz de trabajo.

Esta es la razón por la que hemos preparado el presente opúsculo, con carácter interno.

El Ararteko

Juan San Martín Ortiz de Zárate.